

## NOTA DE PRENSA

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Lehendakariak CLH hidrokarburoen enpresako ordezkari gorenaz hartu du

López de Silanes-ek Barcinari helarazi dio konpainiak 5,5 milioi euro inbertitu duela Foru Komunitatean azken zazpi urteotan

Viernes, 17 de enero de 2014

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Compañía Logística de Hidrocarburos (CLH) enpresako ordezkari goren José Luis López de Silanes hartu du ostiral honetan, Foru Gobernuaren egoitzan. CLH Espainiako merkatuan enpresa-liderra da petrólio-produktuak garraiatzen eta biltegiratzen.

Bilkuran zehar, enpresariak Lehendakari helarazi dio konpainiak 5,5 milioi euro inbertitu duela Foru Komunitatean azken zazpi urteotan beste operazio-hobekuntza batzuen artean, bost biltegiratze-depositu berri eraikitzeo. 40.700 metro kubikoko ahalmena dute haien, eta datorren hamarkadako erregai-horniduraren beharrei erantzutea dute xede.

Inbertsio honen ondoren, konpainiak 120.000 metro kubiko biltegiratzeko ahalmena du Nafarroan eta 172 kilometro inguruko oliobide-sare bat, Espainiako gainerako lekuekin lotuta dagoena San Adrián aldetik. Gainera, Noaingo aireportuan presentzia du, aireontziak hornitzeko instalazio batekin, bere filial CLH Aviación-en bitartez.

José Luis López de Silanes bilkuran izan da, CLH Taldeko Komunikazio eta Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari Pedro Martínez eta Nafarroako enpresako arduradun Rafael Granderekin batera.



Barcina Lehendakaria CLH enpresako ordezkari goren José Luis López de Silanes-ekin.